

## Déjà vu



ENEKO  
OLASAGASTI  
ZUZENDARIA ETA  
GIDOIGILEA

**2**021eko urriko artikulua idaztera nindoala 2019koa topatu dut. *Hezkuntzak ez du telefonoa hartzen* zeukan izenburua. Bi urte pasa dira eta ez dela denborarik pasa esan daiteke. Beno, denbora bai pasa da, baina badi-rudi denbora besterik ez dela pasa. Orain dela bi urte arduratzen gintuzten gauza berdinek arduratzen gaituzte gaur ere. Pandemiarekin gertatu dena parentesia izan balitz bezala. Eta erabat pasa ez bada ere, pasa izan balitz bezala jokatzeko ari gara. Baina hau guztia gertatu aurretik konpondu gabe zeuden kontuek hortxe jarraitzen dute, egoera berdinean.

Hilabete honetan egin da EDADEI 3 izeneko topaketa. Dantza, arte dramatikoa, hezkuntza eta ikerketa lotu dituen jardunaldia. Bilboko BADen urriaren 16an eta Donostiako LABOn 23an aritu dira, eta *déjà vu* sentsazioa izan dut berriro ere. Gaiak utzi genituen tokian hartu ditugu, ez baita ezer berezirik gertatu aipatutakoen inguruan. Bai, zerbait nabarmen aldatu da; orain topaketa hauek *online* egiten ditugu, baina gainontzean denak berdin darrai. Mahai-inguruen gaiak ondorengoak izan dira: eskola artistikoak (anitzak eta diziplina artekoak);

sorkuntza eta ikerkuntza dantzan eta arte dramatikoan; titulazioak eta erre-konozimenduak dantza eta arte dramatikoan; eta, azkena, hezkuntza arautuan aantza eta arte dramatikoaren tokia edo presentzia.

Azken urteetan gurrpil zoro batean sartuta gabiltzala esango nuke. Gai berdinen inguruan bueltaka, inora heldu gabe. Eta konfinamenduan kulturak jokaturako papera ahuntzaren gauerdiko eztula besterik ez zela ohartu gara. Hitz politikak horretan geratu direla, hitzetan. Eta gu marmotaren egunean iratzarri gara berriro. Eta betiko gaien inguruan hasi gara berriro eztabaidan.

Eragile ugari eta oso bestelako jatorritakoak bildu gara mahaien bueltan eta denoi interesatu zaigu besteek esandakoa, gogoetatutakoa, hausnartutakoa. Denok gatoz bat hezkuntzan tokia behar dutela dantzak eta arte dramatikoak, eta pausoak ematen hasteko garaia dela.

Tira, den-denok ez dakit bat ote gatozen, hutsune inportanteak ere izan zirelako. Jaurlaritzako Kultur Saileko ordezkariak azaldu zen. Hezkuntza saila ere gonbidatuta zegoen, jakina. Baina ez zen inor azaldu. *Déjà vu.* ●

## Fikzioaren gramatika IV: dvandvak



EDU ZELAIETA ANTA  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

*"Fikzioa omen da komunikazioa, norberaren interpretazioa ez bezala. Fikzioa omen da egia, gezurra ez bezala. Fikzioa omen da errealitatea, fikzioa bera ez bezala". A. Alieva*

**B**ikoteka lerrokatzen dira, elkarte kopulatibo gisa. Alabaina, belarrira eman dizunaren kontrara, dvandvak ez dira animalia exotikoak. Sanskritotik etxekotuak omen ditugu aspal-dixkotik –“bikote” esan nahi omen du etimoan–, eta ageriko lardaskan aritzen dira. Gizakion genealogiatik urrutixko daude, edonola ere: ez dira gure antzeko piztia-abere.

Kategoria bera izatea omen da gakoa eta, adituek diotenari jarraika, aski eman-kor gertatzen dira egoki uztartuz gero: ezker-eskuin, goi-behe, aitzin-gibel, zuri-beltz, pobre-aberats, gizon-emakume... Pluralezko izaera aitortzen zaie dvandvei, nahiz eta berez biren arteko harremana den. Halaber, arestian kateatu dituzun adibide mutuek protesta egin arren, maila berekotzat hartu beharrean gaude.

Euskarazko adibidea ere badakarren frantsesezko Wikipediak salbatu zaitu, nolabait, kaosetik: *forment une énumération virtuelle*. Birtualak dira, izan ere, dvandvak. Belarriz, errepika baterako aproposak. ●